

KONTROL MOZIOA

dBUS ADMINISTRAZIO KONTSEILUA DELA ETA

Amaia Martin Garin IRABAZI Donostiako bozeramaileak eta Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten dute, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016eko maiatzaren 11n, Donostiako Tranbia Konpainian gauzatu zen Administrazio Kontseiluan, bederatzi puntu izan genituen hizpide. Ustez, eta eskumenak eskumen, Lehendakaritzatik Administrazio Kontseilura proposamenak eztabaidatzeko eta osagarritzeko eramaten diren arren, egun hartakoan ikusi ahal izan genuen Kontseilua espazio informatibo huts bilakatzen ari dela eta kontseilariok Lehendakaritzaren eta Zuzendaritzaren proposamen eta erabakiak entzutera joan behar dugula. Aitzitik, azkeneko bi legegintzaldietan, gutxienez, sozietateak bestelako funtzionamendua izan du: kontseilariok Zuzendaritzaren proposamenak eztabaidatu, osagarritu eta bozkatzeko aukera izan dute.

Maiatzeko bilkuran, ordea, 3. eta 4. puntuan kontseilariak proposamenak bozkatzeko aukera ukatu zitzaion, kontseilari batek baina gehiagok hori eskatu zuten arren. Horrez gain, 2. puntuan, interpelazio hau izenpetzen duen kontseilari bati, arbitrarioki, proposamen gehigarri bat proposatu eta bozkatzeko aukera ukatu zitzaion; hain zuzen, beste kontseilari bati horretarako aukera eman zitzaionean. Azkenik, Lehendakaritzaren aldetik, zenbait kontseilari egindako galdera zuzenei ez erantzuteko jarrera nabarmendu zela iritzi dugu. Are larriago, ondorengo eguneko prentsan, errealitatea bestelakoa izan zen arren, irakurri ahal izan genuen Administrazio Kontseilua izan zela gai-zerrendako proposamen eta neurri guztiak erabaki zituen, benetan, Lehendakaritza izan zenean.

Interpelazio sinatzen dugun kontseilariok ez dugu uste dBusen Administrazio Kontseiluaren funtzionamendua hau izan behar denik, ez dBusen ez bestelako udal sektore publikoko sozietateetan, eta kontseilariok errespetua merezi dugula uste dugu.

Ekainaren 20ko kontrol batzordeetan, ordea, Udal-gobernuak ukatu egin zuen kontseilukideei euren posizioa espresatzea ezeztatu zitzaionik, baina jarraian adierazi zuen kontseilukideek ezin dituztela momentuko proposamenak egin, ez eta sozietateko Lehendakaritzako proposamenen inguruan bozkatu. Horretaz gain, adierazi zitzaigun Administrazio Kontseiluaren funtzionamenduaren inguruan erregelamendua esaten duena egin behar dela. Egun berean, dBuseko Administrazio Kontseiluko erregelamendua eskatu

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

genuen, baina gaur arte ez zaigu helarazi; jakin dugun arte erregelamendu hori ez dela existitzen.

EH Bildu eta Irabazi taldeen iritziz, Udal-gobernuak batzordetan erantzundakoa aitzakiak baina ez dira maiatzaren 11ko jokaera justifikatzeko. Ez dugu uste udal sozietateetan jokamolde hertsiki hauekin funtzionatu behar denik eta pentsatzen dugu kontseilukideen adierazteko, proposatzeko eta posizionatzeko eskubideak errespetatu behar direla. Adibidez, Etxegintza edo Sustapena bezalako sozietateen kontseiluetan egiten den moduan.

Horiek horrela, hauxe da Irabazi Donostia eta EH Bildu taldeek aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal-gobernuari udal sozietateen kontseiluek, eta bereziki dBusekoak, gardentasun eta gobernu on printzipioen baitan funtzionatzea eta bermatu dezala kontseilukideen adierazteko, proposatzeko eta posizionatzeko eskubidea.

Donostian, 2016ko ekainaren 24a

| | |
|---|--|
| <p>Amaia Martin Garin Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea</p> | <p>Axier Jaka Goikoetxea EH Bildu udal taldeko zinegotzia</p> |
|---|--|